euskaldunon Egunkaria

ostirala

1999ko apirilaren 9a -- X. urtea -- 2.586. zenbakia -- Salneurria: 125 pta. 6 libera

Euskal Herriko Itzulia



GARI GARAIALDE

Secchiari, Moerenhout eta De Paoli hirukoteak egin zuen eguneko ihesaldia.

## Moerenhot holandarrak ihes eginda irabazi du laugarrena Lekunberrin

*Okerrik ezean Jalabertek irabaziko du gaur Itzulia* • 28-32

# EBZk puntu erdia jaitsi du diruaren prezioa, espero baino laurden bat gehiago

*Interes tasak %2,5ean utzi ditu Banku Zentralak*

ESPERO bezala, interes tasak jaitsi egin zituen atzo Europako Banku Zentralak (EBZ), baina ez espero zen neurrian; izan ere, puntu erdi jaitsi zuen EBZk diruaren prezioa, %2,5eraino. Horrenbestez, *Euroland*-eko herrietan diruak hori balio ko du hilaren 14tik aurrera. Euroa indarrean dagoenetik, atzoko erabakia izan zen EBZk diruaren gainean hartutako lehena. Berria jakin orduko, banketxe nagusiek merkatu egin zuten bezero bereziei eman ohi dizkieten maileguen prezioa. Banku Zentraleko buruek adierazi zuten erabakia sinesgarria izatea nahi dutela. • 19

## Presoen egoerari «erantzun eraginkorragoa» ematea aztertuko dute EAJ, HB eta EAk

*Halaxe jakinarazi dute Senideetako eta AABetako gose grebalariekin bildu ondoren* • 9

**politika**

Egibarrek esan du hiru hilebetetan egoera lehertarazteko zeregina eman diola Aznarrek Mayorri • 7

**gizartea**

Euskal Herriko zabortegiak egokitzeko egitaratua zehaztu du Pages suprefetak • 12

**ekonomia**

Administrazio Publikora begira negoziazio mahaia eratzeko deia egin diote ELA-LABek Eusko Jaurlaritzari • 24

**europa**

Haider, eskuin muturreko agintari bat, Austriako eskualde bateko gobernadore izendatu dute • 24

**kirola**

Miel Saralegi 327 kiloko harria jasotzen ahaleginduko da gaur Aian • 36

**kultura**

Dulwich Picture Gallery bildumako maisulanak Bilboko Arte Ederretako Museoan daude ikusgai • 41

**Kosovo; gerra Balkanetan**

LOUISA GOULIAMAKI / EPA



## NATOk dio bera ez dela Pristinako txikizioaren erantzule

NATOk, 16. egunez jarraian, aire erasoak egiten segitu zuen atzo, baina ukatu egin du Pristinan eraikin zibiletan izan den txikizioaren erantzule dela. «Telebistan ikusitako kalteak serbiarrek beraiek eragin dituzte», esan du David Wilby NATOko bozeramaileak. Serbiarrek, berriz, aliatuei egotzi die errua. Kazetarien arabera, Pristina hutsik dago, eta serbiarrek diote bertan 150.000 lagun daudela. Bien bitartean, iheslarien egoera are tamalgarriagoa da: 260.00 iheslari etxera itzultzera behartu dituzte serbiarrek, • 22-23

## Prozesuari bultzada emango dio bihar jendetzak

*Arratsaldeko 17:30etan abiatuko da manifestazioa, Bilboko Aita Donostia plazatik* • 6